



2025ko martxoak 14

IRTENBIDE GABEKO ERROTONDAN

Negoziatzeko eta adosteko ezintasuna, ahalmena dutenen aldetik muturrera eramanda



1.- Soldata taulak: 2025. urterako, D.B.H., Batxilergo eta Lanbide Heziketako langileei patronalak ez die akordioan jasotzen den %16ko soldata igoera aplikatu nahi, ezta Goi mailako Tituladuneei ere eta gehiengoa duen sindikatua ados dago horrekin.

2.- Kontratazioak: Finantziazioa publikoa izan arren eta Eusko Jaurlaritzarekin akordio bat sinatuta eduki arren, ez dituzte pausuak eman nahi meritu, gaitasun, berdintasun eta publizitate printzipioetan oinarrituta egin behar diren kontratazioak gardenak izateko.

3.- Birkokapen araudia: Greba bukaerako akordioan adostu bezala, langile bat ezin bada birkokatua izan, 26 eguneko mugarik gabeko indemnizazioa jasotzeko eskubidea du. Neurri hau, ikastetxe batzuek langileak birkokatzeko jartzen dituzten trabak diruz zigortzeko helburuz adostu genuen. Orain aldiz, indemnizazioari 12 hilabeteko tope bat jarri nahi diote zigorra leuntzeko.

4.- Emplegua mantentzeko neurriak: Greba bukaerako akordioan adostu genuen bezala, 3 batzar egin behar genituen matrikulazioaren egoera aztertzeko zein figura berrien sorrerarako (euskalduntzeko, aniztasunari trataera emateko, hezkidetza, IKT...) eman daitekeen emplegu suntsiketa ekiditeko.

33. mahai negoziatzailera heldu gara eta Patronalek pisu gutxiko mugimenduak hasi dira egiten akordioa sinatu zenetik. 14 hilabete pasa ondoren, oraindik ere 5 korapilo handi ditugu askatu gabe, Kristau Eskola eta AICE-IZEAren etengabeko blokeoren jarreragatik eta gehiengo sindikala duen sindikatuaren ezgaitasunagatik.

Aipatutako bilerak egin gabe daude KE eta AICE-IZEAren interes ezagatik eta gehiengoa duen sindikatuaren utzikeriagatik. Negoziazio mahaietan LAB da behin eta berriro puntu honi garrantzia ematen dion sindikatu bakarra.

5.- Lizentzia eta baimenak: aurrerapausuak eman dira, txikiak badira ere: Hainbat lizentzia eta baimenetan lege aldaketak eman dira hobekuntzakin. Urtean 4 egun lan eguneko orduak ezinbesteko arrazoiengatik baimena kasu. Hala ere, zaintzarako 8 asteko baimena edo familiakoak zaintzeko eszedentzia 3 urtera arte luzatzea, oraindik ere ez dira garatu, LABek behin eta berriro eskatu arren.

Pazientziak mugak ditu! Urte bete luzea pasa da greba bukaerako akordioa adostu zenetik eta ez dute hitzarmenik adostu nahi. Patronalek behin eta berriro akordioa berrinterpretatu edo sinatutakoa, murrizketa gehiagorekin, berriro negoziatu nahi dute. Hori dela eta, LAB sindikatuak EAE mailan dituen ordezkari sindikalekin batzartuko da egoeraren azterketa egiteko, dauden tresna juridikoak aztertzeko eta ekintza sindikalaren aukerak baloratzeko, beti ere, sinatutako akordioa bete eta errespeta dezaten. Hartutako erabakiak patronalei adieraziko dizkiegu hurrengo apirilean izango dugun mahai negoziatzailean.



2025ko martxoak 14

ROTONDA SIN SALIDA

La incapacidad de negociar y acordar, llevada al extremo por parte de los que están facultados para ello.



1. Tablas salariales: para el año 2025, al personal de D.B.H., Bachiller y Formación Profesional ni a los Titulados Superiores, la patronal no quiere aplicar el incremento salarial del 16% recogido en el acuerdo, algo con lo que el sindicato mayoritario está de acuerdo.

2. Contrataciones: a pesar de que la financiación sea pública y tengan suscrito un acuerdo con el Gobierno Vasco, no quieren dar pasos para que las contrataciones deban realizarse bajo los principios de mérito, capacidad, igualdad y publicidad y sean transparentes.

3. Normativa de recolocación: Si, como se acordó en el acuerdo final de huelga, un trabajador no puede ser reubicado, tiene derecho a una indemnización 26 días por año trabajado sin límite de mensualidades. Esta medida fue acordada con el objetivo de penalizar económicamente las trabas que algunos centros ponen a la recolocación del personal. Ahora, en cambio, quieren poner un tope de 12 meses a la indemnización para suavizar la pena.

4. Medidas para el mantenimiento del empleo: tal y como acordamos en el acuerdo de fin de huelga, teníamos que realizar 3 reuniones para analizar la situación de la matriculación y evitar la destrucción de empleo con la creación de nuevas figuras en los centros

Hemos llegado a la 33^a mesa negociadora y las patronales están realizando escasos movimientos desde la firma del acuerdo. Pasados 14 meses aún quedan 5 grandes nudos sin desatar debido a la actitud de bloqueo permanente de Kristau Eskola y AICE-IZEA y a la incapacidad del sindicato con mayor representación.

(euskaldunización, atención a la diversidad, coeducación, TIC...). Las citadas reuniones están pendientes debido al desinterés de KE y AICE-IZEA y la desidia del sindicato mayoritario. En las mesas de negociación LAB es el único sindicato que da importancia a este punto.

Licencias y permisos: se ha avanzado en las licencias y permisos, aunque de carácter menor. Se han introducido las modificaciones legislativas en algunas licencias y permisos con mejoras. 4 días laborables al año en caso de permiso por fuerza mayor. Sin embargo, la ampliación hasta los 3 años de la excedencia por cuidado de familiar y de 8 semanas por cuidado de menor sigue sin desarrollarse a pesar de la insistencia de LAB.

¡La paciencia tiene límites! Ha pasado un año desde el acuerdo de fin de huelga y no quieren pactar ningún convenio. Las patronales quieren reinterpretar el acuerdo una y otra vez o renegociar lo firmado, con más recortes. Por ello, LAB se reunirá con los representantes sindicales del sindicato a nivel de la CAV para analizar la situación, analizar los instrumentos jurídicos existentes y valorar las posibilidades de acción sindical para que cumplan y respeten el acuerdo firmado. Trasladaremos las decisiones tomadas a las patronales en la mesa negociadora que tendremos el próximo mes de abril.